

2019ko URTARRILA

181

txi kitto!

**TOR
MAGOArekin
magiaz blai**





Euskara Elkarte

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartea.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Malen Jainaga.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

- Zer egiten du arrain batek leihotik jausten denean?
- Aaaatunnnnnnnn!!!!



- Lagun batek galdetu dio beste bati:
- Zertan ari zara?
- Hemen, aitari idazten.
- Eta zergaitik idazten duzu hain poliki?
- Nire aitak ez dakielako azkar irakurtzen!



- Neska bat lokal batera joaten da eta ozenki esaten du:

- PIZZA BAT NAHI DUT, TOMATEAREKIN, PEPERONIAREKIN, GAZTAREKIN...

Lokaleko neskak baxu-baxu esaten dio:

- Parkatu baina hau liburutegia da!

Orduan neskak baxu-baxu esaten dio:

- Pizza bat nahi dut, tomatearekin, peperoniarekin, gaztarekin...



Jaimito eskolan dago eta andereñoak esaten dio:

- Jaimito, kanta ezazu bigarren gerra mundiala.

- Bale, bum, bum, bum, prrrrrbrummm!!!!



Andereñoak gelako mutil bati esaten dio:

- Ez jolastu suarekin!!!!

Eta Sua jolastu gabe gelditu zen.



Kartzelan preso batek galdetzen dio beste bati:

- Zergaitik zaude hemen barruan?

- Ez didatelako lagatzen ateratzen!!



Zer egiten du behi batek zelai baten erdian begiak itxita?

Esne kontzentratua!!!!!!



Kartzelan preso batek galdetzen dio beste bati:

- Zergaitik zaude hemen barruan?

- Ez didatelako lagatzen ateratzen!!

Andereñoak galdetzen dio Jaimitori:


- Jaimito, badakizu igeri

egiten?

- Bai andereño, badakit

- Non ikasi duzu?

- Uretan!!!





Hizki-zopa

Aurkitu 6 futbolari ospetsuen izenak


F	C	K	J	N	H	J	P	Q	Q	M	
M	S	T	N	U	V	A	F	P	R	B	
A	G	M	W	O	X	R	Z	T	G	A	
B	I	M	O	D	R	I	C	I	S	P	
A	E	W	I	F	O	A	W	I	P	P	
V	S	H	A	Z	A	R	D	L	W	E	
B	O	N	A	L	D	O	A	P	E	U	
Q	H	V	R	S	I	T	A	E	I	O	U
Z	V	S	U	A	R	E	Z	Z	C	T	
U	Z	Y	U	X	W	E	U	H	M	X	
E	J	P	R	W	B	H	I	G	T	A	
V	U	V	E	C	I	N	A	V	C		
C	Q	Y	U	V	O	I	S	Y	U	R	
N	E	Z	P	W	X	E	I	S	M	G	
A	M	B	C	P	W	O	A	U	E	A	
G	R	H	I	Q	F	U	T	S	K	M	

Hazard
Mbappe
Suarez
Messi
Ronaldo
Modric


Egilea: Ian P.

Labirintoa

Eraman arratoia gazta jatera



Egilea: Ander




7 Deberdintasuna!!



yuxuan ye

Gurutzegrama

1. Fruta berdea edo gorria izaten da.
2. Bigarren Planeta da.
3. Futboleko jokalaria da eta Juventusen jolasten du.
4. Bizi garen eraikina.



7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **otsailak 5** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak

Adina Tel.



**Poz-pozik
jaso zituen sariak Anek.**

Aurreko hileko irabazlea, Ane Cabezas


Aupa Ane, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK!

Tor Magoa

...eta kitto!-n egon da

Nork ez du ezagutzen Tor magoa? Eibarren behin baino gehiagotan izan da, ... eta kitto! Euskara Elkarteak egindako gonbidapenei baiezko biribila emanez beti. Kuxkuxeroa da txikitatik, eta 16 urterekin hasi zen jende aurrean magia egiten (familiaren aurrean hasieran). Lehenengo trikimailuak bere aititeri ikusi zizkion.

elkarrizketa



- **Telebistako saio bat?** Sherlock.

- **Oroitzen duzun umetako pelikula bat?**

Aladdin. Abesti guztiak oraindik dakizkit.

- **Magorik gustokoena?**
David Copperfield.

- **Inoiz ikusi duzun trikimailurik ikusgarriena?**

David Copperfield hegan egiten.

- **Nor eramango zenuke irla batera?**

Sukaldari bat. Ondo jatea garrantzitsua da.

- **Eta nor ez?**

Lapur bat. Gutxi dago irla batean eta ez dut lapurretarik nahi.

- **Eta zer 3 gauza?**

Txistera, liburu elektroniko bat (liburuz betea) eta makilatxo magikoa, edozer agerrarazteko.

- **Umetako amets bat?**

Magoa izatea eta antzoki handi batean magia egitea.

- **Eta gaur egungoa?**

Hegan egitea.

Izena: Aitor

Abizena: Bilbao

Jaioterria: Getxo

Jaiotze-data: 1982-05-23



- **Gehien gustatzen zaizun jakia?**

Txirlak saltsan.

- **Eta gutxien?**

Tripak.

- **Espagetiak tomatearekin ala gabe?**

Berdin dit, baina ganbekin mesedez.

- **Sekula jantziko ez zenukeen arropa?**

Bat ere ez. Ihauterietan edozer jarri ahal da, izatez denetarik jarri dut.

- **Zure armairuan falta ez dena?**
Jaka bat. Mago elegantea naiz.

- **Magoa ez bazina zer izango zinateke?**

Ingeniaria ala fisikaria.

- **Birziklatzen duzu?**

Bai.

- **Euskara osasuntsu dago?**
Erdixka.

- **Zer egin gehiago erabiltzeko?**
Euskara maitatu.

- **Animalia bat?**
Gepardo.

- **Kolore bat?**
Berdea.

- **Itsasoa ala mendia?** Itsasoa.

- **Gazia ala gozoa?** Gazia.

- **Zerk pozten zaitu?**
Ikuslegoaren irribarreek.

- **Zerk haserretu?**
Iruzurrak.

Zapatuan tailerrera, baina ondo pasatzera!

Lasai, ez zarete lanean hasiko. Zapatuetako tailerrak 5 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekimena da, eta eskulanak egiten ikasi, dantzan egin edota ideia berriak garatzeko balio dute. Orain dela hainbat urte jarri zen martxan Astixak bultzatuta eta aurten ere egongo da bertan izena emateko aukera. Izan ere, urtarrilaren 28ra arte egongo da zabalik izena emateko epea.

Adin bakoitzeko haurrentzat ekintza ezberdinak antolatu dituzte, beti ere ondo pasatzea eta sormena lantzea



helburu. Haur Hezkuntzako 3. mailako haurrek, adibidez, 'goma Eva'-rekin kareta egingo dituzte. Horretarako, gurasoen partaidetza ere beharrezkoa izango da.

Gurasoekin egin beharko dute euren tailerra Lehen Hezkuntzako 1. mailako haurrek ere. Eurek, ordea, kartoizko buruhandiak egingo dituzte.



Lehen Hezkuntzako 2. mailakoek jostailuak sortuko dituzte, eta 5. eta 6. mailakoek maketak egingo dituzte. Euren kasuan guraso gabe.

Tailer hauek otsailaren 9an, 16an eta 23an egingo dira eta www.astixa.eus webgunean eman ahal izango da izena.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek, bestetik, amantala jantzi behar izango dute. Izan ere, sukaldaritza osasungarriari buruzko tailerra egingo dute otsailaren 2, 9, 16 eta 23an. Euren kasuan Pegoran eman beharko dute izena, urtarrilaren 28a baino lehen, beti ere.



Urte Berri on denoi
Arrateko Andra Mari
ikastetxetik!

Hemen gara berriro
lanerako gogotsu eta
hainbat ekintza egiteko
prest:

Urtarrilaren 10ean, 6.
mailako ikasleek Odol emaleen tailerra izan zuten.
Urtarrilaren 24an, 5. mailakoak Tramankuloak ikasgelan
antzezlanak ikustera joango dira Portaleara eta
urtarrilaren 21etik 22ra 5. eta 6. mailakoak Arotz Enean
izan dira.
Urtarrilaren 21etik 25era, eskolako liburutegian “Clara
y su sombra” haur indarkeria eta sexu gehiegikeriak
hautzarotan proiektuaren inguruko erakusketa izango
dugu.



Joan den ikasturtean
Aldatzen 1x1 ekimenaren
aldeko apostua egin
genuen eta hori dela
eta, aurtan ere ikasleak
lizentzia digitalak dituzte
ordenagailuekin lan
egiteko, bai gelan, baita
etxean ere. Proiektu honek ikasle bakoitzak ahalik eta
ikasketa pertsonalizatuena izatea ahalbidetzen du eta
aldi berean ikasleen gaitasun digitala hobetzen da.
Argazkikoak LH 5. mailako ikasleak dira.



Agenda 21arekin lotuta, 2.
hiruhilabetekoan **Amañako**
gure eskola hondakin
proiektuan murgilduko da.
Ziklo bakoitzak esparru bat
landuko du: Haur hezkuntzak
birziklapenaren hastapenak, lehen zikloak olioaren
birziklapena, bigarren zikloak eskola eta patioa
aztertuko du eta hirugarren zikloak, berriz, Amañako
auzoa aztertuko du.



Euskarak 365
egun!!! hartutako
konpromisoarekin bat
eginez, gabonetako
oporren bueltan **Mogel**
ikastolan Gaur be
euskaraz! eguna ospatu
genuen urtarrilaren 7an.



Altxorraren bila, jolasetan eta bideo emanaldietaz
gozatzeko aukera izan genuen eta, urtea umoretsu
hasteko txiste-txapelketa dibertigarri bat ere antolatu
genuen.

Gabonetako oporretatik bueltan, **San Andres**
eskolako ikasleek lehenengo hiru egunetako goizetan
hainbat tailerretan parte hartu dute: sukaldaritza,
mahai-jolasak, antzerkitxoak... Oso ondo pasatu dute!
Bestalde, aurtan ere ATE IREKI eguna ospatzera goaz.
Urtarrilaren 26an, larunbata, arratsaldeko 16:30etik
19:30era, eskolak atea irekiko ditu, bertara hurbildu
nahi duten familia, gazte eta haur... guztientzat.



Tailer, txapelketa,
txokolatea eta sorpresa
mordo bat prestatu
ditugu arratsalde bikaina
pasatzeko.
Animatu eta etor
zaitezte!

Urte indarrarekin
hasi izana espero
dugu **La Salle**
Isasitik!!! Urtarrilaren
14an 4m zinemara
joan ziren Asterix
eta Obelix filma
ikustera. Urtarrilaren
21etik 26ra LH-koak kontsumobide tailerrak lantzen ari
dira gauza pila bat ikasiz, eta 23an berriz, 2.ziklokoak
Donostiara joan ziren bertako orkestraz disfrutatzeraz!!!
Hilabetea primeran bukatzeko 29tik otsailaren 1era arte
BAKEAREN ASTEA ospatu dugu eskolan, gaia landuz
eta denon artean mundu baketsu eta hobe bat lortzeko
asmoz!!!



Urkizuko 6. mailakoak
Arotz-Enean egon dira,
elkarbizitza giro jator
batean eta aldi berean
euskararen erabilpena
indartuz. Oso ongi pasatu
dute, noski, esperientzia
polita iruditu zaie eta
gustora errepikatuko
lukete. Urtarrilaren 7tik
18ra, 3. mailakoak igeriketara
ikastaroa izan dute Orbea
kiroldegian. Arratsalde dibertigarriak izan dira. “Ezin
al dugu ikasturte osoan berdin jarraitu?” galdetzen
dute.





sukal-saltsan

Espageti-kabia

Kabi gozo-gozoekin natorkizue oraingoan. Ummm gozoa benetan! Jarraitu ondorengo pausoak eta kontatuko didazue, zer nolako kabitxoak irten zaizkizuen.

Osagaiak (4 kabi egiteko):

- 4 arrautza txiki
- 8 koilarakadatxo tomate-saltsa
- Gazta birrindua
- Espageti egosiak
- Albaka-hosto freskoak
- Gurin edo olio pixkat



Nola egin:

- 1.- Gurin edo olio pixkatekin igurtzi madalenak egiteko 4 zuloko moldea eta espageti batzuk jarri zuloetan kabi itxura emanaz.
- 2.- Kabi bakoitzean tomate-koilarada pare bat isuri eta gainerik gazta birrindua.
- 3.- Arrautza jarri kabi bakoitzaren gainean eta kolpetxo suabe batzuk eman moldeari zuringoa ondo sar dadin pasta artetik. Gainontzeko espagetiak gorringoaren inguruan jarri kabiak amaitzeko.
- 4.- 15-20 minutuz sartu labean, aurrez 180 gradutan berotuta egon eta gero. Amaitzeko albaka-hosto batzuk jarri gainean eta listo!



Gosari/merienda osasuntsua 5 minututan

Errezeta honek gosarirako zein meriendarako balio dezake, berdin-berdin, eta osasuntsua da topera! Eguna indartsu hasteko edo arratsaldeari gogotsu ekiteko. Ogia txigorgailuan sartu eta bitartean moztu kiwia xerratan. Ogia prest dagoenean erditik moztu, erdi baten gainean nahi duzuen zaporeko mermelada jarri eta gainerik hainbat hazi, eta bestean urdaiazpikoa olio pixkatekin. Hori guztia laranja-zuku batekin lagun dezakezue, adibidez.



Kaktus-harriak

Kaktus hauek ez dute behar inolako zaintzarik, ez eguzki ez ur ez ezer. Eta apaingarri moduan zoragarri geldituko zaizkizue.

Materiala:

- Nahi duzuen neurriko loreontziak.
- Forma biribileko harriak, hondartzan edo erreketan egoten direnak.
- Hartxintzar edo harri txikiagoak. Mendian edo hondartzan aurkituko dituzue.
- Pintzela.
- Margo txuria eta berde-tonu ezberdinak, edo berde-tonu bakarra eta horia nahastu kolore ezberdinak lortzeko.



Pausoak:

1. Harriak garbitu eta ondo lehortu. Behin lehortuta kaktusak izango balira moduan margotu, berde-tonu ezberdinekin. Interneten ideia ugari aurkituko dituzue.
- 2.- Bete loreontzia hartxintzarrekin eta kaktus-harriak lehorrak daudenean sartu hartxintzar artean zutik gelditu arte. Nahiz izanez gero loreontzia ere margotu dezakezue. Hainbat kaktus elkar ditzakezue loreontzi berean, edo kaktus bakarra jarri loreontzian... Zuek nahi duzuen moduan, irudimena erabili eta aurrera!



Estresa kentzeko pilota

Behar duzuen honako hau: globo bat, kolore ezberdinetako Orbeez bolatxoak eta plastikozko botila bat. Utzi Orbeez bolatxoak uretan 8 orduz. Hori egin eta gero sartu bolatxoak plastikozko botila barruan. Puztu globoa eta sartu botila globoaren barruan, botila estutu eta Orbeez-ak globoan sartuko dira. Bolatxo guztiak sartu eta gero, kendu aire guztia eta korapiloa egin.



URKIZU IKASTETXEKO 6. MAILAKO IKASLEAK AROTZ ENEAN IZAN DIRA EGUN BATZUK PASATZEN. BERTAN HAINBAT TAILER EGIN DITUZTE ETA HORIEN INGURUAN JARDUN DUGU EUREKIN. HEMEN DUZUE BOSKOTE HONEK KONTATU DIGUNA.



Zein tailerretan hartu duzue parte?



Izaro Alzaga,
11 urte

Nik ukenduak egiten ikasteko tailerlean hartu nuen parte. Lehenengo eta behin zainbelarra hartu genuen. Zainbelarra deitzen da, hostoak atzeko aldean, zainak diruditen adartxoak dituztelako. Bakoitzak hosto bat edo bi hartu genituen, ondo txikitu eta olio eta argizariarekin batera berotu genituen. Behin hoztu eta gero potetxo batean sartu eta listo! Ukendua eginda. Gauza askotarako balio du, kolpeentzat, odol-uzkientzat, kakao moduan, erredurentzat, intsektuen ziztadentzat...



Arrate Balerdi,
11 urte

Nik zentzumenen tailerlean jardun nuen. 2 tailer egin genituen, usaimenarena eta ikusmenarena. Lehenengoan begiak estali zizkiguten eta ibilalditxoak egin genituen aterpetxe barruan eta kanpoan. Gida bat genuen laguntzeko. Sentsazio berria izan zen, eta arraroa, baina polita ere bai. Itsuen lekuan jarri ahal izan ginen. Bigarren tailerlean usaimena landu genuen. Hor ere begiak estalita hainbat pote jarri zizkiguten aurrean, barruan denetik zegoen: kakaoa, espezieak, kafea, eguzkitako krema... eta asmatu egin behar genuen ia zer zegoen ontzi bakoitzean. Hau ere oso dibertigarria izan zen.



Miren Arroitauregi,
11 urte

Txorien tailerlean hartu nuen parte. Oso polita izan zen. Lehenengo eta behin, aterpetxean bertan, pantaila digitalean txori mota ezberdinak erakutsi zizkiguten, txoriak nola bereiztu jakiteko. Txori bat edo beste den jakiteko hainbat gauzatan fijatu behar gara: hegoak, hegan egiteko modua, kolorea... Behin hori ikasita mendira joan ginen, katalajeokin txoriak ikusi eta aztertzerara. Hemendik aurrera mendira noanean gehiago fijatuko naiz.




Ariane Arrizabalaga,
12 urte

Itzalen tailerra egin nuen. Lehenengo oihal bat jarri ziguten horman eta atzean proiektorea argiarekin. Taldeetan banatu ginen eta txandaka joan ginen itzalak egiten ikasten eta gero egiten. Oso dibertigarria da, antzerkia ere egin behar izan genuen, naturarekin lotutakoa eta polita irten zen. Nik itzalekin hainbat gauza egiten ikasi dut: untxia, arranoa, arbolak... Gehien gustatu zaidana antzerkia egitea izan da, nola egin daitekeen antzezlan bat aurpegiak ikusi gabe, formekin bakarrik.



Julen Uranga,
11 urte

Ni ez naiz Arotz Eneara joan eta orduan ezin dizuet kontatu hango tailerrik, baina asko gustatzen zaidan eta urtero egiten dugun jarduera baten inguruan egingo dizuet berba: Arrateko irteera. Urtero egiten dugu, oinez joaten gara eta gero han hainbat jolas egiten ditugu: ur-jolasak, pintzen jolasa, aurpegiak margotu, altxorren bila... Niri gehien gustatzen zaidana pintzen jokoa da. Taldeak egiten dira eta taldekide bakoitzak hainbat pintza izaten ditu arropan zintzilik. Elkarki pintzak kendu behar dizkiogu eta pintza gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Bazkaldu eta gero berriro jaisten gara oinez. Oso egun polita izaten da.



Cosimoren katiuskak 6 urtetik aurrera

Cosimo eta parke txiki bat dira protagonistak. Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. “Hiriko parkerik txikienean nago eta Cosimo dut izena. Trebea izan nahi dut zuhaitzetan gora. Trebeena. Adarretik adarrera ibili nahi duzunean, beherantz ez begiratzea da hoberena”.



Hilketa fiordoetan 8 urtetik aurrera

Opor garaia da: Mystery lehengusu-lehengusiñak luxuzko King Arthur transatlantikoan daude, itsas bidaia egiten... baina beti izaten da krimenen bat!



Hiru katu kontu 10 urtetik aurrera

Ihes egitea zaila bada, are zailagoa itzultzea, ahaztuen zerrendatik irten eta gailurreraino berriro iristea. Horretan dabil HB. Lehengo lagunak bizirik ote? Lo-lita izan zuen salbatzaile, baina aldi berean etsai; ezin inorekin fidatu. Zailtasunak zailtasun, HB ez da jaio erdipurdikoen lohian plisti-plasta ibiltzeko. Kosta ahala kosta bereganatuko du berriz Litxarrerien Jaunari dagokion lekua. Itzuli da HB!

BIKO KATEA (San Andres Ikastetxea)

ZELAN JOLASTU?

Hasteko, gure gelakide bat geratzen da eta norbait harrapatzen saiatuko da.

Beste bat harrapatzen duenean, eskutik emanda joango dira biak, besteak harrapatzera.

Lau pertsona daudenean, askatu eta bi bikote sortuko dira. Besteak harrapatzen jarraituko dute eta laukotea osatutakoan berriro banatuko dira bikoteetan.

Horrela, denak bikoteka gelditu arte.



jolastokixan jolasian

BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/san-andres-ikastetxea-2.html>

bitxikeriak



Katu bati biboteak kentzen badizkiogu ezingo da ondo ibili, oreka galdu eta erori egingo da. Probarik ez egin e?



Koala batek bizitza osoa eman dezake urik edan gabe.



Thomas Alva Edison bonbilla elektrikoaren asmatzaileak beldurra zion iluntasunari.



Txinako arrainak ez dira arrainontzietan aspertzen, haien memoriak bi minutu besterik ez ditu irauten eta eurentzat berriz jaiotzea bezala da.



Lehenengo palmondoak ipar poloan hazi ziren.




Txinpantzeak, orangutanak, izurdeak, elefanteak eta... gizakia dira euren burua ispilu baten aurrean ezagutzeko gai diren espezie bakarrak.



Gezurra badirudi ere eltxoek hortzak dituzte, 47 hortz!




Telefono mugikor biren artean arrautza bat jartzen badugu egosi egingo da 62 minututan (hobe proba ez egitea!).



Jaiotzen garenetik gure begiek neurri bera dute.



Gizakion gorputzeko giharrik indartsuena mingaina da.



Eguzkiak argia emateari utziko balio, lurrean 8 minutu beharko genituzke hortaz konturatzeko.



Hartz zuriak ezkertiak dira.



Sudurrak bekokiaren luzera bera dauka.



ipuin

Unikornioetan sinisten duen neskatala

Badago neskatala bat Cloe izenekoa, unikornioetan sinisten duena. Eskolan burula egiten diote dira unikornioetan sinisten duelako. Berak pentsatzen du animaliak direla, orduan bere gustuko "animaliak" dira. Eskolan "2 urteko umea" deitzen diote.


Cloe nazkatzen hasten da eta orduan bere aita eta amari esaten die eskolaz aldatu nahi duela. Bere gurassei ez zaie ideia gustatzen, orduan erabakitzen dute psikologo batera eramatea ez dutelako nahi eskolaz aldatzea. Gurasok psikologora eramatea nahi dute burutik kentzeko unikornioak existitzen direla.

Egunak pasatzen dira eta ezer, Cloek jarraitzen du unikornioetan sinisten. Hurrengo egunean orain ez duela unikornioetan sinesten esaten du. Cloeren gurassak psikologo onenarengana eraman nahi dute Ingalaterran. Cloe etxetik joaten da. Txinako bassetan unikornioak existitzen direla uste duelako. Gaur iristen da eta kanpin denda bat jartzen du. Goizean txerri asko aurkitzen ditu. la bertan geratzea erabakitzen du baina azkenean ez, bere familian pentsatzen duelako.

Cloe etxera doa, ohean sartzen da eta unikornio bat bere gelan agertzen duela amesten du. Unikornioak esaten dio ez dela existitzen, amets bat bat dela. Hurrengo egunean gelakoei esaten dio ametsa dela eta ametsetan sinesten jarraituko duela.

IRATXE





zu margolari